

BATZAR ERABAKIAREN JAKINARAZPENA

Garazi Lopez Villanueva, Mendialdea Mankomunitateko Idazkariak, neure ardurapeko idazkaritza honetan jasotzen den dokumentazioa aintzat hartuta **ZIURTATZEN DUT**:

Mendialdea Mankomunitateak 2022ko urriaren 18an ospatutako bilkuran, besteak beste, bertaratutakoek honako erabakia hartu zuela:

“7.- Lan Eskaintza publikoaren deialdiaren onespena

AURREKARIAK:

14/2022 LE bidez 2022. urterako Mendialdea Mankomunitatearen lan publikoaren eskaintza onetsi zen, eta 2022ko maiatzaren 12an NAO 92. aldizkarian argitaratu.

2022ko urriaren 18an Mendialdea Mankomunitateko Batzar Orokorrak 19/2022 Foru Legaren II. tituluan jasotako erregulazioari PARTZIALKI atxikitzea eta Mankomunitatearen errealitatearekin bat datorren merituen puntuazio propioa onartzea erabaki du.

Espediente honen parte dira deialdia arautuko duten oinarriak eta horrekin bat igorriko diren “merezimenduen autoebaluaziorako taula” eta “parte hartzeko eskaera” orria.

Horietan proposatzen den merituen puntuazioa honakoa da:

a) MEREZIMENDU PROFESIONALAK: gehienez ere 60 puntu.	a.1) Mendialdean eta deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.
	a.2) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.
b) BESTE MEREZIMENDU BATZUK gehienez ere 40 puntu	b.1) Mendialdean deialdiaren xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gaingitu izana, lanposturik eskuratu gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 28 puntu lanposturik eskuratu gabe gaingitutako deialdi bakoitzeko.
	b.2) Hizkuntza atzerritarrak: Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik: 5 puntu gehienez haietako bakoitzagatik.

APLIKATU BEHARREKO LEGEDIA:

- Nafarroako Toki Administrazioen uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea
- Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak aurre ikusten dituen 20/2021 Legeak eta 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak.

- 19/2022 FORU LEGEA, uztailearen 1ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak egiteko neurriak arautzen dituenak.

Aipatutako guztia kontutan izanda, eta gaiari buruzko beste iruzkinik ez dagoenez, bertaratutakoek aho batez onartu dute:

LEHENENGOA.- Espediente honen parte diren deialdia arautuko duten oinarriak eta horrekin bat igorriko diren “merezimenduen autoebaluaziorako taula” eta “parte hartzeko eskaera” orria bere osotasunean ONARTZEA, eta beraz, horietan agertzen den merituen puntuazioarekin bat deialdia argitaratzea.

BIGARRENA.- Mankomunitateko Lehendakariari deialdia onartuko duen Lehendakari Ebazpena igorri eta NAOn publikatu dezan eskatzea, Mendialdea Mankomunitateko enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuari hasiera eman dioezaion.”

Leitza, 2022ko urriaren 27an

Ondorioz, honela jasota gera dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, batzar erabakiaren jakinarazpen hau luzatzen dut.

LEHENDAKARIA

Unai Berroeta Miranda

IDAZKARIA

Garazi Lopez Villanueva